

Hizkuntza Politikaren Plan Estrategikoa (2016-2019)

Partaidetza Prozesua

Bilera-mota	Sektore-bilera: ZERBITZU PUBLIKOAK
Eguna	2016-11-08
Ordua	17:00-19:00
Lekua	Iruñea, NAPI egoitzan

Bertaratutakoak	
Aritz Ayesa (Antsoaingo Udala – Iruñerriko Mankomunitatea)	Julen Aranguena (Lizoain-Arriasgoitiko Udala)
Garbiñe Petriati (Behatokia)	Corpus Urroz (Nafarroako Gobernua – Ogasun Saila)
Inma Errea (Iruñeko Udala)	Joseba Otano (AET-Iruñerriko Euskaingintza)
Manu Esteban (LAB – Administrazioa)	Teresa Iribarren (Artzibar-Auritz-Erroibar-Luzaideko euskara teknikaria)

Euskarabidetik: Ander Irizar

Elhuyarretik: Jon Abril

Gai zerrenda

- Ongietorria
- Plan Estrategikoaren hasierako idatzaldia aurkeztea
- Sektorekako lanketa: elkar ezagutzea eta talde-lana
- Balorazioa eta agurra

Bileran egindakoa

Euskarabideko Ander Irizarrek egin die ongietorria hurbildutako eragile guztiei. Ongietorria eta Planaren aurkezpena modu bateratuan egin ditugu, zerbitzu publikoetako eta kultura arloko eragileak elkartuz. Anderrek Plan Estrategikoaren prozesuaren nondik norakoak eta Planaren markoa azaldu ditu lehenbizi, eta ondoren, Elhuyarreko teknikaria den Jon Abrili eman dio hitza, planaren helburuak aurkezteko. Aurkezpena egin bitartean, parte-hartzaileek lanketa-fitxa izan dute

eskuartean oharrak jasotzeko. Lanketa-fitxak honakoa jasotzen zuen: *Erantsiko nuke.../ Zalantza eragiten dit.*

Aurkezpenaren ondoren, sektoreka banatu gara eta sektore bakoitzeko eragileak gela desberdinetara joan gara sektorearen lanketa propioa egiteko.

Behin arlo bakoitzeko eragileak elkartuta, elkar ezagutzeko izen-erronda egin dugu. Jarraian, euskara alorrarekin erlazionatzen diren helburuen dokumentua banatu dugu (19 helburu jasotzen dituen) eta talde txikian honako galderen gainean jardun dugu lanean:

- Zerbait erantsiko zenuke? Zerbait faltan botatzen duzue?
- Zerbaitek zalantza eragin dizue?

	ZERBITZU PUBLIKOAK
1.1.	Euskararen gizarte erabilera handitzea, erabilera sustatuz eta hizkuntza ulertzen badute ere mintzatzeko ohiturarik ez duten hiztunak aktibatuz.
1.3.	Komunikaziorako tresna teknologikoak euskararen gizarte erabilera emendatzeko inbertsio estrategikotako jotzea, euskararen erabilera beste edozein hizkuntzarena bezain erraza eta samurra eginez.
1.5.	Eskolaz kanpoko jarduerak eta, oro har, aisialdi antolatuen esparruak haur-gaztetxoek hizkuntza portaeretan duen eraginkortasuna hobetzea, beraien artean euskaraz egiteko ohitura sortu eta sendotzeko.
1.6.	Merkataritzan, zerbitzu profesionaletan eta enpresetan euskararen erabilera hedatzen duten ekimenak garatzea, norbanakoei euskaraz lan egitea errazten dietenak, euskara komunikazioetan sartzen dutenak, euskarazko eskaintza ikusgarri egiten dutenak eta euskara hizkuntza paisaia ohiko egiten dutenak.
1.8.	Udalerrri euskaldunek eta, oro har, euskararen arnaguneek Nafarroarako duten balio kualitatiboa aintzatestea; aurrerantzean ere euskarak eskualde horietako gizarte-bizitza eratzen duen elementua izaten segi dezan.
3.1.	Nafarroako Gobernuaren Administrazioan euskararen ezagutzaren eta erabileraren gaineko informazioa izatea Gobernu departamentuei hizkuntza planifikazioa errazteko.
3.2.	Foru Administrazioa hobeki gaitzea gizarteak zerbitzua euskaraz jasotzeko.
3.3.	Politika publikoak garatzean Foru Administrazio departamentuek Nafarroako bi hizkuntzekiko duten erantzukizuna sustatu eta horretan laguntzea.
3.4.	Toki entitateekiko lankidetzak markoa sistematizatzea eta hizkuntza politikari dakarzkieten emaitzak maximizatzea.
3.5.	Estatuko Administrazioari Foru Komunitatean ematen dituen zerbitzuetan euskararen erabilera sartzeko helburua erraztea.
4.1.	Euskararen irudia eta prestigioa hobeki kokatzea, euskarak Nafarroaren balio positiboekin eta etorkizuneko balioekin duen lotura azkartuz.

4.3.	Gizartearen paisaian eta bizitzan euskararen presentzia dinamizatzea, Nafarroaren hizkuntza errealitateari dagokion berezko erantzun gisa.
4.4.	Informazio eta komunikazio teknologiak euskararen berezko garapen-hobi bihurtzea, euskara eta modernitatea estuago estekatzeko estrategiatzat.
6.1.	Nafarroako administrazio publikoetan eta izaera publikoko sozietateetan euskararen erabilera arautzea herritarrak zerbitzu publikoez euskaraz baliatu ahal izateko, gaztelaniaz besteko eraginkortasun eta erraztasun baldintzetan.
6.2.	Plan Estrategikoaren garapen egokia bermatzeko behar diren baldintzak sortzea, betiere Plan Estrategikoan jasotzen diren helburu estrategikoak erdietsi ahal izateko.
6.3.	Euskarak Nafarroan duen egoera soziolinguistikoa, orokorra nahiz arlokakoa, ezagutzeko datuak eskuratzea gizarteari eskaintzeko eta hizkuntza politika aldi oroz euskararen errealitatearen gaineko informazio oso eta eguneratua oinarritzeko.
6.4.	Euskararen erabilera ofiziala arautzea gizartean haren erabilera ahalbidetzeko.
6.5.	Nafarroako toponimia arautzea gizarteak hura ezagutu eta zuzen erabil dezan.
6.6.	Finantziarioa eta baliabide ekonomikoak bilatzeko plana garatzea, Plan Estrategikorako funtsa gehigarriak eskuratzea ahalbidetuko duena eta euskararen prestigioa handitzeko balio izanen duena.

Ondoren, talde handian konpartitu dugu talde txikietan hausnartutakoa.

Saioa bukatzeko, balorazioa egin dugu eta hurrengo urratsak zein izango diren gogoratu ditugu.

Bileran jasotako iritziak eta ekarpenak

Erantsitakoak edo azpimarratzekoak diren alderdiak:

- Nafarroako Gobernuako Departamentuetako bakoitzak bere plan propioa egitea.
- Kontratueta hizkuntza-irizpideak txertatzea.
- Hizkuntza-profilak zehaztu eta profilik ez duten postuetan meritu gisa baloratu euskara. Eremu euskaldunerako %10; eremu mistorako jende aurreko postuen % 10 eta gainerakoetan % 5; eremu ez-euskaldunean % 5 (aukeran).
- Idatzietan euskara lehenetsi, ezkerreko aldean jarri.
- 3.1.1. eta 3.1.2. puntuetan Hizkuntza-eskakizuna kontzeptua sartu beharko litzateke. Hizkuntza-eskakizunen lege-definizioa egin behar da, Administrazio Publiko guztietarako (Nafarroako Gobernua, Udalak, Mankomunitateak...).
- Hizkuntza-eskakizunen gaiak erabateko premia du, 2017ko plantiletan sartzeko, egingo den Lan Eskaintzarako.
- 3.2. puntuan, administrazio guztien arteko lankidetzaren organo bat sortu (Nafarroako Gobernua izatea horri estalkia emango diona), administrazio guztien gaikuntza-

prozesurako, bateratzailea izanen dena, eta ez biderkatzeko baliabideak eta ahaleginak (3.3.1.2 puntuan ideia hau jasotzen da Gobernuko departamentuen artean lantzeko, baina administrazio guztietara hedatu beharko litzateke).

- Zehaztasun handiagoa beharko litzateke gai hauetan.
- 3.3.2.2. Unitate edo teknikari normalizatzaileen figura sortu departamentu guztietan, erreferente gisa. Lehenetsuna ematea gai honi, funtsezkoa delako (berdintasunean egin den bidetik). Postuak sortu.
- 6.1.1.2. puntuan, “hizkuntza-eskakizunak zehazteko proposamena egin” baino, “hizkuntza-eskakizunak zehaztu”.
- 6.1.2. puntuan, hitzarmenen atalean, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzak hitzarmena egin, bikoizketak ekiditeko eta baliabideak ez xahutzeko.
- Plana herritarrari ematen zaion zerbitzuan fokalizatu da, eta logikoa da hori. Baina langileek euskaraz lan egiteko duten eskubidea falta da.
- Programa informatikoak, baliabideak, hizkuntza-irizpideak... kontuan hartu behar dira.

Bileran jasotako iritziak eta ekarpenak

Zalantza eragiten duten alderdiak:

- Giza baliabideen errealitatea.
- Ausardiarik ba ote dagoen euskara gaiekin aurrerapausoak emateko administrazioan.
- 2017ko LEPetan hizkuntza-eskakizunak ezarriko den.
- 3.4. puntuko toki-administrazioekin lankidetzak benetakoak izatea, ez soilik dirua ematea. Elkarlana egon behar du.
- Zehaztasun falta.
- Hurrengo gobernuen jarduna konprometitu beharko litzateke. Nola egin?

Bileraren balorazioa

Bakoitzak hitz batez baloratu du saioa eta saioan landutakoa:

- Interesgarria
- Sintonia (2)
- Partekatzea (2)
- Erronka
- Zehaztasuna

Eta saioaren balorazioa orokorra egiteko, balorazio-orria bete dute. Hona emaitza:

BILERAREN BALORAZIO-ORRIA (Sektore-bilera: ZERBITZU PUBLIKOAK)

BALORAZIOA				
BILERAREN ORDUTEGIA ETA IRAUPENA EGOKIAK IZAN DIRA		1	5	1
GAIAK LANTZEKO MODUA GUSTATU ZAIT			4	3
BILERAREKIKO ESPEKTATIBAK BETE DIRA			2	4
BILERA AURRETIK JASOTAKO INFORMAZIO NAHIKOA IZAN DA		2	3	2
GIROA ATSEGINA IZAN DA			2	5
PLAN ESTRATEGIKORAKO EKARPEN INTERESGARRIAK EGIN DIRA			2	5
GAUZA BERRIAK IKASI DITUT		3	2	2
BILERAN PARTE-HARTZEAK AURRERA BEGIRAKO URRATSETARAKO MOTIBATU EGIN NAU		2	3	2
HARREMAN ETA SARE BERRIAK ERAIKI DIRA		4	2	1
BILERAN PARTE HARTZEAK ASETU NAU			4	3

EGIN NAHI DITUZUN OHARRAK